

Ezustekoen ganbara

**Leku berria.**

Haurrentzako prestatu duten txokoak izen berria izango du aurtengo azokan. Itxuraz ere oso bestelakoa izango da. Argazkian, iazko haur txokoa.

BERBARO ELKARTEA

Haurrentzako txoko berria zabalduko dute aurtten Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan: Saguganbara. Hiru gune izango ditu ganbara bereziak, eta askotariko ekintzak antolatu ditu Berbaro elkarteak.

Leku berezia izan ohi da ganbara. Ezkutalekua. Sekretuen gordelakua. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak ere ganbara berezi bat izango du aurtten: Saguganbara.

Irakurtzeko, jolasteko eta entretenitzeko ganbara izango da Saguganbara. Irudimena eta sormena garatzeko txokoa. Haurrentzako euskaraz sortzen diren produktuak, liburuak, disko zein materialak aurkezteko txokoa. Tailerrak, ikuskizunak eta emanaldiak egiteko gune gozoa. Sortzaileak eta erabiltzaileak harreman zuzenean jartzeko espazioa. Haur, gazte eta helduen arteko lotura eta transmisioa estutzeko gordelakua. Eta, nola ez, irakurtzeko babeslekua ere izango da ganbara.

Hiru gune izango ditu: tailer irekiak egiteko gunea; espazio muga izango duten tailer zehatzak egiteko areto txikia; eta aurkezpenak, ikuskizunak eta ekintza bereziak egiteko areto nagusia.

Ganbarako hiru guneak egunero-



egunero egongo dira zabalik, azokak irauten duen lau egunetan: abenduaren 6tik 9ra, 10:30etik 20:00etara.

Egun horietarako guztietarako, askotariko ekintzak, jarduerak eta tailerrak antolatu ditu Berbaro elkarteak: ipuin kontaketa; liburu, disko eta material aurkezpenak; tailerrak; antzerki emanaldiak...

Hainbat tailer libreak izango dira, baina izango dira leku mugatua duten ekintzak ere. Kasu horietan, derrigorrezkoa izango da ekintza baino lehen izena ematea. Ganbaran bertan eman ahal izango da izena, lekuak bete arte.

Alboan duzue egun horietarako Berbaro elkarteak antolatu dituen ekintzak. Informazio gehiago eskuratzeko, begiratu azokaren atarian: www.durangokoazoka.com

Egitaraua

ABENDUAK 6

- **11:00:** Aretoko aurkezpena.
- **12:00-13:30:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Aurkezpena: *Sentitu, pentsatu, ekin!* disko sinfonikoa, *Zazpikoloroa* DVDa eta *Zazpikoloroa* eta *Maite zaitut* ipuinak.
- **15:30-17:30:** Tailerra, Kale Dor Kayiko taldearen eskutik.
- **17:00-18:30:** Mezulari argitaletxeko Alboka bildumako hiru album ilustratuen aurkezpena.
- **18:30-19:30:** Toti Martinez de Lezearen *Nur eta dortoken uharte* liburuaren aurkezpena.

ABENDUAK 7

- **11:00-12:00:** *Maria Macozzi clown* ikuskizuna, Bazen Behin *clown* taldearen eskutik.
- **11:00-13:00:** Komikigintza tailerra, 8-12 urte bitartekoentzat.
- **12:30-13:30:** Izaki mitologikoen inguruko ipuin kontaketa, Kimutx taldearen eskutik.
- **15:30-17:30:** Tailerra, Kale Dor Kayiko taldearen eskutik.
- **16:30-17:30:** Ikaslar: euskarazko jolasen tailerra. Adina: 3-6 urte.
- **17:30-18:30:** *11 kantatzeko* lanaren aurkezpena.
- **18:30-19:30:** Ikaslar: euskarazko jolasen tailerra. Adina: 6-10 urte.

ABENDUAK 8

- **11:00-11:30:** *Liburu bat, mundu bat* tailerra, Mestiza elkartearen eskutik. Adina: 0-3 urte.
- **11:00-12:00:** Emakume ijitoak ipuinak kontatzen.
- **12:00-13:00:** *Liburu bat, mundu bat* tailerra. Adina: 3-5 urte.
- **12:00-13:00:** Poxpolo Ta Konpainia. Aurkezpena: *Segi jotzen!* DVDa.
- **15:30-17:30:** Tailerra, Kale Dor Kayiko taldearen eskutik.
- **17:30-18:30:** Jolas dinamizazio musikatua, Urtxintxa eskolaren eskutik.
- **18:30-19:30:** *Titiriteroen ipuinak* liburuaren kontaketa eta tailerra, Urtxintxa eskolaren eskutik.

ABENDUAK 9

- **11:00-13:00:** Ilustrazio tailerra. Adina: 3-5 urte.
- **11:00-12:00:** Olentzero albuma *kamishibai* moduan.
- **12:00-13:00:** Ipuin kontaketa, Maite Frankoren eskutik: *Zu eta ni, bi begi nini*.
- **15:30-17:30:** Tailerra, Kale Dor Kayiko taldearen eskutik.
- **16:00-18:00:** Ilustrazio tailerra. Adina: 6-8 urte.
- **16:30-17:30:** *Mundua koloretan* antzerkia, Txatxilipurdi elkartearen eskutik.
- **18:00-19:00:** Ipuin kontaketa saioa. Adina: 3-7 urte.